

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ANTOÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Lehiaketa publikoa, Jabalí izeneko VI-10167 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena**

Lehiaketa publikoa, Jabalí izeneko VI-10167 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Antoñana, Apinaiz, Atauri, Azazeta, Bujanda, Korres, Laminoriako Errege Harana, Maeztu, Erroeta, Oteo, Erroitegi, Sabando eta Birgaragoiengo jurisdikzioetako lurrek osatzen duten eta titularra, jabe taldearen ordezkartzan, Antoñanako Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria da berrogeita zortzi mila ehun eta berrogeita bat (48.141) euro urteko, BEZa barne; gehiago eskainiz hobetu ahal izango da.

Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza esparruaren aprobetxamendu zinegetikorako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Jabalí izeneko VI-10167 esparruaren ehiza aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onartu behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Antoñana, 2019ko uztailearen 8a

*Errejidore-lehendakaria*

**LAURA CASTELLANO LOZANO**